



*Curriculuma*

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

**HERRITARREI ZUZENDUTAKO HEZKUNTZA  
ETA  
MUNDU IKUSKERAK ETA ERLIJOAK**



## HASTAPENAK

Batzorde honek Mundu Ikuskeren arloa lantzeko eskaria jaso zuen. Arlo hori garatzeko aukera aztertzen zuen bitartean, Herritarrei zuzendutako Hezkuntzaren arloa ere batzordearen eskuetan jarri zuten. Lehenik eta behin, Mundu Ikuskeren arloa lantzeko modua eztabaidatu zen: alegia, berariazko arlo gisa edo Gizarte Zientzien edo Herritarrei zuzendutako Hezkuntzaren barruan. Une hauetan aurrean dugun testuingurua ikusirik eta Mundu Ikuskeren arloak derrigorrezko etaparen batean ordutegi jakinik izango duen ala ez erabaki gabe egonik ere, proposamen bikoitza egin genuen:

1. Berariazko ordutegirik izango ez balu, bloke tematiko propioa curriculumaren barruan sartzea, Gizarte Zientzietarako batzordearekin elkarlanean.
2. Berariazko ordutegia izango balu, garapen akonfesionala eskaintzea derrigorrezko bigarren hezkuntzarekin lotutako ebaluazio-irizpideak, edukiak eta gaitasunak barne hartuz. Denbora gutxi genuenez ezinezkoa izan zaigu proposamen curricularra gehiago garatzea. Batzordeak arloaren izena aldatzea proposatzen du: "Mundu Ikuskerak eta Erliijoak" da proposatutako izen berria.

Herritarrei zuzendutako Hezkuntzari dagokionez, lehen hezkuntzan gai hori zeharka lantzeko proposamena dagoela jakinik, gure lana Herritarrei zuzendutako Hezkuntza derrigorrezko bigarren hezkuntzara mugatzea da, batez ere. Egungo prozesua uneren batean luzatuko balitz, arlo hau lehen hezkuntzan zeharka nola landu ere aztertu beharko litzateke.



## HERRITARREI ZUZENDUTAKO HEZKUNTZA



## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA



## SARRERA

UNESCOren *XXI. menderako ikastea* izeneko programa Jacques Delorsek koordinatu zuen. Hona hemen, programa horren arabera, etorkizuneko hezkuntzaren lau zutabe nagusiak: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea. Curriculumaren arlo guztiak lau zutabe horietan oinarritu behar direla onartuz, "Herritarrei zuzendutako Hezkuntzaren" arloak elkarrekin bizitzen ikastea izango du helburu nagusi. Beste kulturetako jendea ulertzea ikaskuntza-prozesua da, ez da prozesu natural soil. Eskolak erreferentziazko esparruak finkatu behar ditu pertsona bakoitzak bere nortasuna edo nortasunak osatu ditzan eta nork bere gizarte-loturak sor ditzan.

Gizarte demokratikoetan elkarrekin bizitzen ikasteko -hau da, herritar izaten erakusteko- ezinbestekoa da elkarriketan jarduten erakustea, beste pertsonekin egoten eta besteak baloratzen erakustea. Helburu hori ikasi egiten da, eta nahitaezkoa izango da erabakiak hartzeko prozesuak lantzea eta hainbat aukeraren artean aukeratzen ikastea.

Proposamen honetan, herritartasuna gauzatzea honela ulertzen da: gizartearen, kulturaren, ekonomiaren, politikaren eta bizikidetzaren arloetan parte hartzea. Parte-hartze horrek guztiona behar du izan, inor baztertu gabe. Neska-mutilek derrigorrezko hezkuntzaren hasieratik ulertu behar dute herritar izateak talde-gaietan parte hartzea eskatzen duela; horrez gain, gizarteko arazoak (txikienetik hasi eta handienetara iritsi arte) haien ardura ere badela ulertu behar dute.

"Herritarrei zuzendutako hezkuntza" mahaigaineratzen denean, pertsonen gizarteratze-prozesuetan esku-hartzearen beharra azpimarratzen da, bakoitzak gizartea ulertzeko eta gizartean jarduteko dituen gaitasunak gara ditzan. Izan ere, ez da nahikoa gizarte demokratiko batean bizitzea horren oinarrian dauden printzipioen arabera jarduteko: subiranotasuna gauzatzeko ezinbestekoa da besteekin elkarrekintzan jardutea. Hori dela-eta, eskolaren



eremuan herritarrei zuzendutako hezkuntza ez da gizarteratze-prozesuetara mugatu behar, eta balore finko batzuen transmisio soiletik harago joan behar du ezinbestean. Horrela, herritarrei zuzendutako hezkuntzak autonomiaren eta elkartasunaren arteko tentsioa piztu behar du, baita gizarteratzearen eta banakako gaitasunen garapen-prozesuaren arteko tentsioa eta arrazionaltasunaren eta sormenaren arteko tentsioa ere, gizarte demokratikoetan agertzen diren kontraesanak gainditu ahal izateko.

Ezagutzei dagokienez, lehen hezkuntzan horiek zeharka banatuko dira etaparen arlo guztietan, horiek guztiek herritarren dimentsioa barne hartzen baitute. Derrigorrezko bigarren hezkuntzan, berriz, gai hau integralki eta berariaz lantzea proposatzen da errealitatearen konplexutasuna aztertzeko. Horrela, gaurko errealitatean kritikoki jarduteko eta etorkizunari aurre hartzeko beharrezkoak diren hizkuntzak eta prozedurak landuko dituzte ikasleek.



## ARLOKO GAITASUNAK

Gure gizarteak eskolaren eta bizitzaren arteko harremanak estutzeko beharra du; hori dela-eta, hezkuntza-proposamen berriak ikasketen transferentzian edo gaitasunen garapenean oinarritzen dira. Hain zuzen, jakintzak erabilgarriak izatea nahi badugu, besteengana hedatzeko moduak izan behar dute eta hausnarketaren, erabakiaren eta ekintzaren gaitasunetan integratu behar dira, herritarrek gizarte konplexuetan aurkitzen dituzten arazo konplexuak konpontzeko baliabideak eta tresnak eskura ditzaten.

Gaitasun horiek ez dira metodo tradizionalen bidez ebaluatu behar; aldiz, ikasleak hainbat arazoren aurrean beren ezagutzak erabiltzeko beharrean jarri behar dira. Hona hemen egoera horietako batzuk: informatzea, aurre hartzea, asmatzea, negoziatzea, erabakitzea, irudikatzea, elkarlanean aritzea, ebaluatzea, arriskuak onartzea, konplexuei aurre egitea, beharrak aztertzea, etab.

"Herritarrei zuzendutako hezkuntzaren" esparrua ezin da gaitasun "kognitiboaren" barruan sartu, azken hori ez bada gaitasun kritikoa behintzat. Horrenbestez, helburu nagusia ez da ikasleei kontzeptu berriak erakustea, gertakarien, informazioen eta balorazioen aurrean beren buruari galderak egiteko gaitasuna lantzea baizik, horiek onartzeko edo baztertzeke.

Gaitasun emozionalaren bidez pertsonen inguruko ezagutzak eta horien sinesmenak eta helburuak landuko dira, baita balorazioan, erregulazioan eta erabileran oinarritutako estrategia afektiboak ere. Eremu horretan nerabeen gizarteratze-prozesuetan esku-hartuko da gizartea ulertzeko, interpretatzeko eta bertan jarduteko gaitasunak ahalbidetzeko. Horretarako, ikasleek beren burua ezagutzen eta kontrolatzen eta beren buruarekin fidatzen lagunduko zaie; horrez gain, besteekin elkarlanean jarduteko, ulertua sentitzeko eta besteei ulertzeko gaitasunak ere landuko dira, elkarlana bultzatuz. Kasu honetan, elkarlanaren esanahia norberaren beharrak taldeko beste pertsonen beharrekin orekatzea da.



Komunikatzeko gaitasuna hainbat strategiaren bidez landuko da: garrantzi berezia emango zaio besteekin ezadostasunak sortzen direnean entzute aktiboa eta arrazoitzeko gaitasuna garatzeari. Hala, norberaren iritziari eutsiz eztabaida bati aurre egiten lagunduko zaie ikasleei.

Herritartasuna aktiboki eta arduraz gauzatzeak arazoei eta gatazkei aurre egitea eta erabakiak hartzea eskatzen du. Ikasleek prestatu egin beharko dute benetako arazoak identifikatuz, horietara hainbat arlotatik hurbilduz, informazioa eta ezagutzak identifikatuz eta azken horiek erregulazio-prozesuetara edo gatazken tratamendura aplikatuz.



## ARLOKO GAITASUNAK

1. Giza baldintza bere banakako dimentsioan eta gizarte-dimentsioan hartzea, norberaren eta besteen nortasuna onartuz banakako desberdintasunak errespetatzeko eta autoestimua garatzeko.
2. Sentimenduak eta emozioak garatzea eta adieraztea, baita trebetasun komunikatiboak eta sozialak ere, gatazken tratamenduan elkarriketa eta bitartekaritza erabilita. Helburua taldekako jardueretan parte-hartzea sustatzea da, jarrera solidarioa agertuta.
3. Berdinen arteko jardueretan parte hartzea, taldekako proiektuak antolatuta. Helburua errespetuan, lankidetzan eta indarkeriaren ukatzean oinarritutako elkarbizitza eta parte-hartzea sustatzea da.
4. Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenetan, Espainiako Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan aipatzen diren eskubideak eta betebeharrak ezagutzea, onartzea eta baloratzea, horien oinarrian dauden baloreak identifikatuz eta horiek jokabide pertsonalak, talde-jokabideak eta gizarte-errealitateak etikoki baloratzeko irizpide gisa onartuz.
5. Egungo gizarteetan aniztasuna ezagutzea, aniztasuna elkarbizitza aberasten duen elementu gisa aitortzeko, elementu bereizgarriak zehaztuta.
6. Pertsona ororen eskubideak eta aukerak defendatzea, generoagatik, jatorriagatik, sinesmenengatik, desberdintasun sozialengatik, orientazio afektibo-sexualagatik edota beste edozergatik gertatu ohi diren injustiziak eta diskriminazioak ukatuta. Helburua elkarbizitza justua eta berdintasunezkoa lortzea da.
7. Emakumeen eskubideak errekonozitzea, emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna baloratzea, eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa sortzen duten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak errefusatzea, garapen pertsonal integrala eta emakumeen aurkako indarkeriarik eta genero desberdintasunik gabeko elkarbizitza lortzeko, berdintasunean oinarritutako jarrera sustatuta.
8. Bizitzari eusteko beharrezkoak diren jarduerak ezagutzea eta baloratzea, emakumeek egindako ekarpenak agerian jarrita. Helburua sozialki lan hori guztia errekonozitzea da, emakumeen eta gizonen zein gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko berdintasunean oinarritutako banaketa proposatuta.
9. Sistema demokratikoen, erakundeen, Elkarte Autonomoen, Espainiako Estatuaren eta Europar Batasunaren oinarrian dauden printzipioak ulertzea eta estimatzea, guztiona den ondareaz eta giza talde bakoitzaren gizarte- eta kultura-aniztasunaz jabetuz, printzipio horiek hobetzen laguntzeko.
10. Bizimodu demokratikoko oinarriak identifikatzea eta errespetatzea, herritarren oinarritzko eskubideen berme gisa Estatuaren -

hitzarmen sozialeko produktu eraginkor gisa- rola estimatzeko, herritarren zereginak onartuta, ondasun komunen mantentzean.

11. Bizitza politikoan parte hartzearen edota herritarren beste parte-hartze mota batzuen garrantzia nabarmentzea, antolaketako beste modu batzuk ezagututa; hala nola, lankidetzak, asoziazionismoa eta borondatezko lana. Helburua bere mailan inplikazioa sustatzea da, ardura sozialaren prozesuan. \*
12. Giza eskubideen zapalketa, txirotasuna eta desberdintasuna eragiten duten arrazoiak ezagutzea, baita horiek gatazka armatuarekin duten harremana ere. Horretarako, bakea, askatasuna eta berdintasuna lortzeko burututako ekintzak baloratuko dira, mundu bidezkoagoa lortzeko parte-hartzea sustatuta.
13. Herritartasun globaleko kide gisa errekonozitu, ohitura eta bizimodu desberdinen aurrean errespetu kritikoa erakutsita, egoera txarrean dauden pertsonekin eta kolektiboekin jarrera solidarioa izateko.
14. Teoria etiko nagusiak identifikatzea eta analizatzea, egungo gatazka sozial eta moral nagusiak errekonozituta, hedabideen eta beste instituzio sozialen (familia, eskola, etab.) bidez transmititzen diren modeloen aurrean pentsamendu kritikoa garatzeko.



## ARLOKO EDUKIAK

Herritarrei zuzendutako hezkuntzak banakako eta taldeko hausnarketarako esparru bat sortu nahi du errealitateari kritikoki aurre egiteko printzipioak arrazionalki eta autonomoki osatzeko. Beharrezkoa da justizia, elkartasuna, elkarlana edo besteekiko zaintza bezalako baloreak sendotuko dituzten bizikidetzarako irizpideak bultzatzea.

Herritarrei zuzendutako Hezkuntzari lotutako edukien banaketa gure garaian funtsezkoa den etika zibikoaren proiektu baten inguruan antolatzen da: Giza Eskubideen proiektuan, hain zuzen. Pertsonak bere buruarekin eta beste kulturetako pertsonekin dituen harremanak hezkuntza integralean sartu beharreko baloreen erreferentzia bihurtzen dira, baita pertsonak generoarekin, inguruarekin edo baldintza ekonomikoekin dituen harremanak ere. Beraz, behar-beharrezkoa da demokraziari eustea eta horretan sendotzea. Maila politiko-instituzionaletatik hasi eta pertsonen arteko adierazpenetara iritsi arte, demokrazia gatazkei aurre egiteko eta bizikidetzarako arauak ezartzeko aukera ematen duen sistema da.

Hausnarketa-arlo horretan gizarte-sarea agerian geratu eta errealitatearen eta gizarte-arauen alderdi bidegabeak azaleratzen dira. Alde horretatik bizimodu bidezkoagoen eraikuntza bultzatzen da bi pertsonen arteko eremuetan, bai taldeen arteko eremuetan ere. Horrez gain, errealitatea kritikoki epaitzeko balore-printzipioak arrazionalki eta elkarrizketaren bidez osatzen dira. Horrekin guztiarekin, pertsonalki eraiki dituzten printzipioekin eta arauekin bat datozen jokabideak bereganatzen dituzte neska-mutilek, gizarteak demokratikoki eta justiziarri eta ongizateari jarraiki ezarritako arauak onartzen dituztelarik.

## ARLOKO EDUKIAK

### A. KONTZEPTUZKOAK

1. Nortasun pertsonala, askatasuna eta ardura.
2. Nortasuna, generoa eta rol soziokulturalak
3. Inteligentzia, sentimenduak eta emozioak.
4. Pertsonen arteko harremanak
5. Elkarbizitzarako trebetasunak eta jarrera sozialak
6. Gatazken erantzun gisa, indarkeria ukatzea
7. Elkarbizitza eta parte-hartze demokratikoa.
8. Parte-hartzea ikastetxean.
9. Demokrazia eta parte-hartze politikoa eta soziala. Eskubideak eta betebeharrak. Instituzio demokratikoak.
10. Giza eskubideen deklarazio unibertsala, haurren eskubideen deklarazioa, nazioarteko itunak eta hitzarmenak. Giza eskubideen zapalketak gaitzestea eta ekintza judizial arrunta eta nazioarteko Auzitegiarena. Giza eskubideen balorazioa amaitu gabeko konkista historiko gisa.
11. Instituzio autonomoak eta lokalak: Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarra, foru aldundiak, udalak, Eudel.
12. Autonomia Estatutua.
13. Arartekoa.
14. Espainiako Konstituzioa eta autonomiak
15. Europako Konstituzioa
16. Egungo gizarteetan desberdintasun sozialak eta kulturalak
17. Dibertsitatea: asimilazioa, baterako existentzia eta kultur aniztasuna. Gutxieneko etnikoak
18. Dibertsitatea eta desberdintasuna
19. Laneko banaketa soziala eta sexuala
20. Diskriminazioa: faktoreak eta arrazoiak. Aurreiritzi sozialak, arrazistak, xenofoboak, sexistak eta homofoboak
21. Emakumeen eskubideen konkista eta emakumeen egoera munduan
22. Genero indarkeria: tratua txar psikologikoa, fisikoa, kontrol jarrerak
23. Boterea eta genero harremanak: harreman afektibo sexualak

24. Lan sortzailea eta birsortzailea. Lanaren balorazioa. Zainketaren etika
25. Mendeko pertsonen zainketa
26. Etxeko lanak
27. Berdintasuna eta parekotasuna
28. Askatasuna, justizia, bakea
29. Herritartasunaren kontzeptua: politika, zibila eta soziala
30. Ezkutuko herritarrak: emakumean, "paperik gabekoak", lanik gabeko pertsonak, etab.
31. Herritarren eskubideak eta betebeharrak
32. Natura babestea. Ingurumena zaintzea
33. Zuzenbidezko estatua
34. Herritartasun soziala eta politikoa: alderdi politikoak, sindikatuak, gizarte mugimenduak eta kultur erakundeak
35. Asoziazionismoa
36. Hirugarren munduari zuzendutako proiektio solidarioa: GKEak EAEn, funtzioak eta proiektuak
37. Hainbat kolektibori arazoak eta diskriminazioak sortzen dizkieten faktoreak txirotasuna eta bazterketa dira. Laugarren mundua
38. Gatazka armatuak eta nazioarteko komunitatearen parte-hartzea ebazpenean. Bakearen kultura. Bakea ezartzeko, mantentzeko edota kontsolidatzeko operazioak
39. Globalizazioa eta garapenaren arazoak. Iparraldea-Hegoaldea harremanak
40. "Txirotasunaren feminizazioa". Hezkuntzara sarbiderik eza, txirotasunaren iturri gisa. Txirotasunaren aurkako ekimenak
41. Herritartasun globala. Giza garapen iraunkorra. Lankidetzak. Giza eskubideak defendatzeko konprometitutako mugimenduak
42. Eskubide berdintasuna eta dibertsitatea. Herritarren aukera pertsonalak errespetatzea eta horien balorazio kritikoa.
43. Dibertsitate soziala eta kulturala. Gizarte anitz batean hainbat kulturaren elkarbizitza. Desberdintasun pertsonalek, ekonomikoek edota sozialek eragindako diskriminazioekiko ukazioa
44. Teoria etikoak.
45. Boterea eta hedabideak
46. Balioak transmititzeko estrategia sozialak: familiak, eskola, publizitatea, etab.

## ARLOKO EDUKIAK

47. Nortasun pertsonala, askatasuna eta ardura.
48. Nortasuna, generoa eta rol soziokulturalak
49. Inteligentzia, sentimenduak eta emozioak.
50. Pertsonen arteko harremanak
51. Elkarbizitzarako trebetasunak eta jarrera sozialak
52. Gatazken erantzun gisa, indarkeria ukatzea
53. Elkarbizitza eta parte-hartze demokratikoa.
54. Parte-hartzea ikastetxean.
55. Demokrazia eta parte-hartze politikoa eta soziala. Eskubideak eta betebeharrak. Instituzio demokratikoak.
56. Giza eskubideen deklarazio unibertuala, haurren eskubideen deklarazioa, nazioarteko itunak eta hitzarmenak. Giza eskubideen zapalketak gaitzestea eta ekintza judizial arrunta eta nazioarteko Auzitegia. Giza eskubideen balorazioa amaitu gabeko konkista historiko gisa.
57. Instituzio autonomoak eta lokalak: Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarra, foru aldundiak, udalak, Eudel.
58. Autonomia Estatutua.
59. Arartekoa.
60. Espainiako Konstituzioa eta autonomiak
61. Europako Konstituzioa
62. Egungo gizarteetan desberdintasun sozialak eta kulturalak
63. Dibertsitatea: asimilazioa, baterako existentzia eta kultur aniztasuna. Gutxieneko etnikoak
64. Dibertsitatea eta desberdintasuna
65. Laneko banaketa soziala eta sexuala
66. Diskriminazioa: faktoreak eta arrazoiak. Aurreiritzi sozialak, arrazistak, xenofoboak, sexistak eta homofoboak
67. Emakumeen eskubideen konkista eta emakumeen egoera munduan
68. Genero indarkeria: tratatu txar psikologikoa, fisikoa, kontrol jarrerak
69. Boterea eta genero harremanak: harreman afektibo sexualak
70. Lan sortzailea eta birsortzailea. Lanaren balorazioa. Zainketaren etika
71. Mendeko pertsonen zainketa

72. Etxeko lanak
73. Berdintasuna eta parekotasuna
74. Askatasuna, justizia, bakea
75. Herritartasunaren kontzeptua: politika, zibila eta soziala
76. Ezkutuko herritarrak: emakumean, "paperik gabekoak", lanik gabeko pertsonak, etab.
77. Herritarren eskubideak eta betebeharrak
78. Natura babestea. Ingurumena zaintzea
79. Zuzenbidezko estatua
80. Herritartasun soziala eta politikoa: alderdi politikoak, sindikatuak, gizarte mugimenduak eta kultur erakundeak
81. Asoziazionismoa
82. Hirugarren munduari zuzendutako proiektio solidarioa: GKEak EAEn, funtzioak eta proiektuak
83. Hainbat kolektibori arazoak eta bazterketak sortzen dizkieten faktoreak txirotasuna eta bazterketa dira. Laugarren mundua
84. Gatazka armatuak eta nazioarteko komunitatearen parte-hartzea ebazpenean. Bakearen kultura. Bakea ezartzeko, mantentzeko edota kontsolidatzeko operazioak
85. Globalizazioa eta garapenaren arazoak. Iparraldea-Hegoaldea harremanak
86. "Txirotasunaren feminizazioa". Hezkuntzara sarbiderik eza, txirotasunaren iturri gisa. Txirotasunaren aurkako ekimenak
87. Herritartasun globala. Giza garapen iraunkorra. Lankidetzak. Giza eskubideak defendatzeko konprometitutako mugimenduak
88. Eskubide berdintasuna eta dibertsitatea. Herritarren aukera pertsonalak errespetatzea eta horien balorazio kritikoa.
89. Dibertsitate soziala eta kulturala. Gizarte anitz batean hainbat kulturaren elkarbizitza. Desberdintasun pertsonalek, ekonomikoek edota sozialek eragindako diskriminazioekiko ukazioa
90. Teoria etikoak.
91. Boterea eta hedabideak
92. Balioak transmititzeko estrategia sozialak: familiak, eskola, publizitatea, etab.

## ARLOKO EDUKIAK

### B. PROZEDURAZKOAK

1. Diskurtso bateko ideia nagusiak identifikatu
2. irizpideen arabera, informazioa sailkatu
3. Hainbat informazio iturriren erabilera: idatzizkoa, ahozkoa, ikus-entzunezkoa, digitala
4. Argumentua eta iritzia desberdindu
5. Arrazoian oinarritutako diskurtso pertsonalen elaborazioa (informazioa, interpretazioa, argumentazioa)
6. Diskurtsoak egiterakoan berdin ikuspuntuak sartu, eurekin polemizatuta nahiz erabat edota partzialki integratuta
7. Simulazioaren, komunikazio tekniken (inkesta, elkarrizketa, etab.), bitartekaritzaren eta beste batzuen erabilera egoera gatazkatsuak tratatzeko tresna gisa
8. Sentimendu propioak eta kanpokoak errekonozitzeko eta komunikazio eraginkorra lortzeko elkarrizketarako trebetasunen erabilera
9. Talde-laneko proiektuak diseinatzen, antolatzen eta garatzen parte hartzea
10. Autokontrol tekniken bidez ikaskuntza autoerregulatzea



## ARLOKO EDUKIAK

### C. JARRERAZKOAK

1. Banakako dimentsioaren balorazioa, dimentsio soziala konfiguratzeko oinarriko elementu gisa
2. Aurreiritziak eta estereotipoak ukatzea
3. Pertsonen berdintasun eta desberdintasun balioen konpromiso pertsonala
4. Autonomia pertsonala errespetatzea eta aukeratzeko gaitasuna errekonozitzea
5. Elkarrizketako iritzi desberdinen aurrean entzuteko gaitasuna baloratzea
6. Proiektuetan parte hartzeko interesa
7. Desberdintasunak desagerrarazteko erakundeek hartutako neurriak baloratzea.
8. Egungo gizartearen aniztasuna baloratzea, jarrera etnozentrikoak, androzentrikoak, misoginoak edo homofobikoak baztertuz.
9. Desberdintasunean oinarritutako errealitate sozialaren aurrean sentsibilizazioa
10. Beste pertsonen balorazio negatiboa inplikatzeko duten espresioen erabilera arreta eta atentzia
11. Ezagutza historikoen eta sozialen gainean, androzentrikoak ez diren interpretazioak baloratzea
12. Emakumeek kulturaren eta historian duten parte-hartzea ezagutzeko interesa
13. Harreman afektiboetan elkarrekiko errespetua eta tratu berdintasuna
14. Sexua-generoa sistemak sortutako indarkeriazko jokaerak baztertzea
15. Genero-desberdintasunen biktima diren emakumeekiko elkartasuna.
16. Bizitzari eusteko gizonen eta emakumeen duten ardura partekatuarekiko jarrera positiboa eta aktiboa garatzea.
17. benetako demokrazia, garapena eta bakea lortzeko beharrezko baldintza gisa, berdintasuna baloratzea
18. Giza Eskubideen zapalketa ekartzen duten egoerak justifikatzeko saiakera errefusatzeko
19. Hedabideetatik, Internetetik... jasotako informazioen aurrean jarrera kritikoa
20. Gizartearen (auzoan, herrian, etab.) parte-hartzeari balioa ematea, baita gelako eta eskolako harremanetan demokratizazioa bultzatzeari ere.



## ARLOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK



<b>GAITASUNAK</b>	<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>
1. Giza baldintza bere banakako dimentsioan eta gizarte-dimentsioan hartzea, norberaren eta besteen nortasuna onartuz banakako desberdintasunak errespetatzeko eta autoestimua garatzeko.	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Gizakiaren ezaugarri soziokulturalak ezagutzen ditu eta horiek pertsona bakoitzaren berariazko ezaugarrien osaketarekin eta bilakaerarekin lotzen ditu.</li><li>2. Bere nortasuna eta besteen nortasuna baloratzen ditu.</li></ol>
2. Sentimenduak eta emozioak garatzea eta adieraztea, baita trebetasun komunikatiboak eta sozialak ere, gatazken tratamenduan elkarrizketa eta bitartekaritza erabilia. Helburua taldekako jardueretan parte-hartzea sustatzea da, jarrera solidarioa agertuta.	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Talde-lanetan parte hartzen du eta iradokizunak onartzen ditu.</li><li>2. Sentimenduak eta emozioak adierazten ditu.</li><li>3. Gatazken tratamenduan elkarrizketa eta bitartekaritza lantzen ditu.</li></ol>
3. Berdinen arteko jardueretan parte hartzea, taldekako proiektuak antolatuta. Helburua errespetuan, lankidetzan eta indarkeriaren ukatzean oinarritutako elkarbizitza eta parte-hartzea sustatzea da.	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Bere ikuspegiak azaltzeko orduan elkarrizketarako prestasuna agertzen du, hitz egokiak erabiliz.</li><li>2. Berdinen arteko ekintzetan eta talde-proiektuetan parte hartzen du.</li><li>3. Ikastetxeko eta inguruneko ekintzetan parte hartzen du.</li></ol>
4. Giza Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenetan eta erakunde demokratikoetan aipatzen diren eskubideak eta betebeharrak ezagutzea, onartzea eta baloratzea, horien oinarrian dauden baloreak identifikatuz eta horiek jokabide pertsonalak, talde-jokabideak eta gizarte-errealitateak etikoki baloratzeko irizpide gisa onartuz.	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Giza eskubideen nazioarteko aldarrikapenen oinarriko printzipioak onartzen eta baloratzen ditu.</li><li>2. Egitezko eta zuzenbidezko desberdintasunak baztertzen ditu.</li><li>3. Tokiko gobernuko, Autonomia Erkidegoko eta Estatuko organo batzuen funtzionamendua, antolakuntza, funtzioak eta hautespen-moduak deskribatzen ditu.</li></ol>
5. Egungo gizarteetan aniztasuna ezagutzea, aniztasuna elkarbizitza aberasten duen elementu gisa aitortzeko, elementu bereizgarriak zehaztuta.	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Egungo gizarteetako aniztasuna positibotzat eta aberasgarritzat hartzen du.</li></ol>
6. Pertsona ororen eskubideak eta aukerak defendatzea, generoagatik, jatorriagatik, sinesmenengatik, desberdintasun sozialengatik, orientazio afektibo-sexualagatik edota beste edozergatik gertatu ohi diren injustiziak eta diskriminazioak ukatuta. Helburua elkarbizitza justua eta berdintasunezkoa lortzea da.	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Bazterketa-egoerak identifikatzen eta baztertzen ditu, banakako desberdintasunak errespetatuz.</li></ol>



<p>7. Emakumeen eskubideak errekonozitzea, emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna baloratzea, eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioa sortzen duten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak errefusatzea, garapen pertsonal integrala eta emakumeen aurkako indarkeriarik eta genero desberdintasunik gabeko elkarbizitza lortzeko, berdintasunean oinarritutako jarrera sustatuta.</p>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Emakumeen eskubideak aintzakotzat hartu eta gizonen eta emakumeen arteko eskubide-berdintasuna baloratzen du.</li><li>2. Gizonen eta emakumeen arteko diskriminazioa ekartzen duten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak baztertzen ditu.</li><li>3. Emakume batzuek jasaten dituzten indarkeria-egoerak baztertzen ditu.</li></ol>
<p>8. Bizitzari eusteko beharrezkoak diren jarduerak ezagutzea eta baloratzea, emakumeek egindako ekarpenak agerian jarrita. Helburua sozialki lan hori guztia errekonozitzea da, emakumeen eta gizonen zein gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko berdintasunean oinarritutako banaketa proposatuta.</p>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Emakumeek bizitzari eusteko egiten duten lana gizartean aitortzea baloratzen du.</li><li>2. Bizitzari eusteko egin behar diren ekintzak gizonen eta emakumeen artean eta gizarte zibilaren eta Estatuaren artean zuzen banatzea baloratzen du.</li></ol>
<p>9. Sistema demokratikoen, erakundeen eta horien funtzionamenduaren oinarri diren printzipioak ulertzea eta aintzakotzat hartzea, guztiona den ondareaz eta giza talde bakoitzaren gizarte- nahiz kultura-aniztasunaz jabetuz eta hori guztia hobetzeko parte hartuz.</p>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Sistema demokratikoen, erakundeen eta horien funtzionamenduaren oinarri diren printzipioak ulertzen eta aintzakotzat hartzen ditu.</li><li>2. Bere inguruko sistema demokratikoak hobetzeko parte hartzen du.</li></ol>
<p>10. Bizimodu demokratikoko oinarriak identifikatzea eta errespetatzea, herritarren oinarrizko eskubideen berme gisa Estatuaren -hitzarmen sozialeko produktu eraginkor gisa- rola estimatzeko, herritarren zereginak onartuta, ondasun komunak mantentimenduan.</p>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Bizimodu demokratikoko oinarriak identifikatzen eta errespetatzen ditu, herritarren oinarrizko eskubideak bermatzeko Estatuari dagokion rola estimatzen du, herritarren zereginak onartuta ondasun komunei euste aldera.</li></ol>
<p>11. Bizitza politikoan parte hartzearen edota herritarren beste parte-hartze mota batzuen garrantzia nabarmentzea, antolaketako beste modu batzuk ezagututa; hala nola, lankidetzak, asoziazionismoa eta borondatezko lana. Helburua bere mailan inplikazioa sustatzea da, ardura sozialaren prozesuan.</p>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Bizitza politikoan eta herritar-partaidetzarekin lotutako beste hainbat ekintzetan parte hartzearen garrantzia baloratzen du.</li><li>2. Elkarlanean eta lan boluntarioan oinarritutako antolakuntza-modu desberdinak ezagutzen ditu eta gizarte-erantzukizunean parte hartzen du, ahal duen neurrian.</li></ol>
<p>12. Giza eskubideen zapalketa, txirotasuna eta desberdintasuna eragiten duten arazoak ezagutzea, baita horiek gatazka</p>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Gatazkek badirela onartzen du eta nazioarteko erakundeek gatazka horietan duten eginkizuna ezagutzen du.</li></ol>



<p>armatuarekin duten harremana ere. Horretarako, bakea, askatasuna eta berdintasuna lortzeko burututako ekintzak baloratuko dira, mundu bidezkoagoa lortzeko parte-hartzea sustatuta.</p>	<p>2. Partaidetza humanitarioak gatazken ondorioak arintzeko duen garrantzia baloratzen du.</p>
<p>13. Herritartasun globaleko kide gisa errekonozitu, ohitura eta bizimodu desberdinen aurrean errespetu kritikoa erakutsita, egoera txarrean dauden pertsonekin ta kolektiboekin jarrera solidarioa izateko.</p>	<p>1. Egungo gizartearen zenbait ezaugarri identifikatzen ditu: desberdintasuna, kultur aniztasuna, bizikidetzaharremanen konplexutasuna... Horiek guztiak hobetzeko jarrera arduratsuak garatzen ditu eta baztertuta dauden pertsoneri eta taldeei laguntzen die.</p>
<p>14. Teoria etiko nagusiak identifikatzea eta analizatzea, egungo gatazka sozial eta moral nagusiak errekonozituta, hedabideen eta beste instituzio sozialen (familia, eskola, etab.) bidez transmititzen diren modeloen aurrean pentsamendu kritikoa garatzeko.</p>	<p>2. Teoria etiko nagusiak identifikatu eta adierazten ditu. 3. Jasotako informazioa kritikoki aztertzen eta erabiltzen du. .</p>

## MUNDU IKUSKERAK ETA ERLIJOAK



# Curriculuma

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**



## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA



## JUSTIFIKAZIOA

Gure ustez, mundu-ikuskerak eta erlijioak Gizarte Zientzien arloan landu beharreko gizarte-fenomenoak dira; horrenbestez, gizarte zientzien curriculum-proposamenaren barruan agertzen dira, beste elementu bat bezala. Batzuetan, espresuki aipatzen dira kontzeptu horiek eta beste batzuetan, berriz, "sinismen" edo "kultura" bezalako kontzeptuen barruan sartuta agertzen dira. Gizarte zientzietako hainbat alorretako gaitasun eta eduki ugari zuzenean aplikatu daitezke, mundu-ikuskeren eta erlijioen ikaskuntzan.

Era berean, Herritarrei zuzendutako Hezkuntzaren Arloan proposatutako gaitasunetako batzuk ere zuzenean aplikatu daitezke, mundu-ikuskeren eta erlijioen ikaskuntzan.

Zer zentzu izango luke, orduan, mundu-ikuskerari eta erlijioei buruzko arlo garatuago batek?

Lehenik eta behin, proposamen hau idazteko momentuan Hezkuntza Ministerioak ez du oraindik erabaki gaur egun "erlijio konfesionalarekiko alternatiba" gisa ezagutzen den ikasgaia derrigorrezko hezkuntzaren curriculumen mantenduko duen ala ez. Ikasgai "alternatibo" horri eustea erabakiko balu, gure ustez oso erabilgarria litzateke hemen agertzen diren edukiak eta antzekoak eskura izatea, gazteek mundu-ikuskerak eta erlijioak hobeto eta gehiago ezagut ditzaten.

Bestalde, migrazio-fenomenoen ondorioz beste kultura, mundu-ikuskerak eta erlijio batzuetako jende ugari iristen ari da gurera, aurretik gure artean zeudenez gain. Gurea bezalako gizarte aniztetasun beharrezkoa da gazteek mundu-ikuskerak eta erlijio desberdinei buruzko oinarritzeko ezagutza izatea, bizikidetzak eta gizarte-integrazioa bultzatze aldera. Gainera, erlijioa gero eta sarriago agertzen da hainbat gatazkatako osagai gisa.

Aurrekoarekin batera, gure ustez ezinbestekoa da erlijio-ikuspegi zehatzetan oinarritzen ez diren erlijio-ideien analisirako eta ikaskuntzarako





proposamenak esku artean izatea: proposamen horiek edozein ikaslerentzako oinarriko edukitzat har daitezke, edozein izanda ere ikaslearen sinesmenak edo erlijioa.

Azkenik, oinarrizko eduki komunak izatea behar-beharrezkoa da, beste curriculum-proposamen batzuk ez baitirudite onargarriak hezkuntza-sistema anitz batean; sinesmen eta sentsibiltate desberdinak biltzen dituen sisteman, hain zuzen.



## Sarrera

Mundu-ikuskera pertsona, garai edo kultura batek munduaz duen kontzeptu orokorra da, iritzi eta sinesmen jakinez osatua: horiek oinarri hartuta, pertsona edo kultura bakoitzak bere izaera eta inguruko guztia interpretatu egiten du. Mundu-ikuskerak bizitzako arlo guztietara (politika, ekonomia, zientzia, erlijioa, moralak edo filosofia) aplikatzen diren kontzeptu komunak definitzen ditu.

Atal honetan erlijio-pentsamenduarekin lotuta sinesmenen dimentsioa aztertuko dugu, baita horren ezeztapena ere, alderdi agnostikoan edo ateoan.

Mundu-ikuskerak (erlijiosoak eta bestelakoak) gizarte zientzietako irakasgai desberdinetatik azter daitezkeen gizarte-fenomenoak dira. Izan ere, gure ustez gizarte zientzietan dagokie mundu-ikuskerak aztertzea derrigorrezko hezkuntzan.

Hori dela-eta, mundu-ikuskerak eta erlijioak aztertzeko curriculumaren beste atal batzuetan (historia, herritarrei zuzendutako hezkuntza, etab.) aurkeztutako hainbat gaitasun, eduki eta irizpide aplikatu behar dira.

Jarraian mundu-ikuskerak eta erlijioak aztertzeko kontzeptuzko zenbait gaitasun eta eduki aurkeztuko ditugu.

"Mundu-ikuskeren eta Erlijioen" edukiak Goi Mailako Derrigorrezko Hezkuntzan koka daitezela proposatzen dugu, pertsona orok egungo gizartean bizitzeko behar duen oinarrizko ezagutzaren atal garrantzitsu bat dela uste baitugu.

## ARLOKO GAITASUNAK

1. Euskal gizarteko eta munduko mundu-ikuskera erlijioso eta ez erlijioso nagusiak identifikatzea, presentzia demografikoa eta geografikoa deskribatuta eta analizatuta, gizarteko mundu-ikuskeren aniztasunaz eta dibertsitateaz jabetzeko.
2. Sinesmen desberdineko pertsonen elkarrekiko ezagutza eta elkarbizitza lortzeko, mundu-ikuskeren elementu zein proposamen nagusiak identifikatzea, horien arteko berdintasunak eta desberdintasunak alderatuta.
3. Mundu-ikuskera jaiotzen, eraldatzen, garatzen edota desagertzen den testuinguru soziala eta historikoa analizatzea, mundu-ikuskeren bilakaeraren gertaerak eta determinatzaile sozialak ulertzeko gertaera historikoak eta elementu garrantzitsuak deskribatuta.
4. Mundu-ikuskeren proposamenak modu kritikoan analizatu gizartearen antolaketa eta praktika historikoa kontuan izanda, eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako arau zein etika-irizpideak nahiz gure gizarteko indarrean dagoen araudia erabilita. Helburua arauen eta errealitate sozialaren arteko konkordantzia eta dibergentzia maila baloratzea da.
5. Gure ordenamendu juridikoaren balioak ulertzea eta apreziatzea. Ordenamendu horrek botere publikoen akonfesionaltasuna, sinesmen askatasuna eta eskubideen zein betebeharren berdintasuna defendatzen du, sinesmen desberdineko pertsonen arteko elkarbizitza soziala lortzeko eta partekatutako balio kolektiboak identifikatzeko laizismoa barneratuta.
6. Gure ordenamendu juridikoaren balioak instituzio publikoen praktikarekin alderatzea, akonfesionaltasuna eta laizismoa kontuan izanda, eta gure bizitza sozialeko zein politikoko mundu-ikuskera desberdinak bilatuta eta deskribatuta, arauen eta errealitate sozialaren arteko konkordantzia eta dibergentzia maila baloratzeko.
7. Gatazka erlijiosoak analizatzea, balio etikoak eta politikoak kontuan izanda. Hala, espiritu kritikoa eta espiritu sozial integratzailea sustatzeko, ikuspuntu desberdinak jarriko dira mahai gainean.



## ARLOKO EDUKIAK

<b>KONTZEPTUZKOAK</b>	<b>PROZEDURAZKOAK</b>	<b>JARRERAZKOAK</b>
-----------------------	-----------------------	---------------------

### **1. blokea. MUNDU IKUSKERA BATEN FUNTSEZKO ALDERDIAK ULERTZEKO ETA AZTERTZEKO ELEMENTUAK ETA KONTZEPTUAK**

Bizitzari, munduari, naturari eta gizarteari buruzko oinarrizko sinesmenak edo arrazoibideak. Mundu-ikuskeraren erlijiosoak eta ez erlijiosoak.

- Pertsonaren eta mundu-ikuskeraren desberdinetan espezializatutako "bitartekari" eginkizuna. Mitoak, sinboloak eta errituak mundu-ikuskeraren desberdinetan.

- Gizartearen antolatzearen eta erlijioaren eta botere politikoaren arteko harremanak finkatzeko proposamenak.

### **2. blokea. MUNDU IKUSKERA DESBERDINEN ESPAZIOA ETA DENBORA**

Historiaurreko erlijioak eta erlijio etnikoak. Antzinako erlijioak: Mesopotamiako erlijioak, Egiptoko erlijioa, erlijio indoeuroparrak, mazdeismoa, Greziako erlijioa, erlijio erromatarra, Vikingoen erlijioa, Zelten erlijioak, koloniaurreko Amerikako erlijioak (maiak, aztekak,

1. Diskurtso bateko ideia nagusiak identifikatu
2. irizpideen arabera, informazioa sailkatu
3. Hainbat informazio iturriren erabilera: idatzizkoa, ahozkoa, ikus-entzunezkoa, digitala
4. Argumentua eta iritzia desberdindu
5. Arrazoiaren oinarritutako diskurtso pertsonalen elaborazioa (informazioa, interpretazioa, argumentazioa)
6. Diskurtsoak egiterakoan berdinen ikuspuntuak sartu, eurekin polemizatuta nahiz erabat edota partzialki integratuta
7. Simulazioaren, komunikazio tekniken (inkesta, elkarrizketa, etab.), bitartekaritzaren eta beste batzuen erabilera egoera gatazkatsuak tratatzeko tresna gisa
8. Sentimendu propioak eta kanpokoak errekonozitzeko eta komunikazio eraginkorra lortzeko elkarrizketarako trebetasunen erabilera
9. Talde-laneko proiektuak diseinatzen, antolatzen eta garatzen parte hartzea

21. Banakako dimentsioaren balorazioa, dimentsio soziala konfiguratzeko oinarrizko elementu gisa
22. Aurreiritziak eta estereotipoak ukatzea
23. Pertsonen berdintasun eta desberdintasun balioen konpromiso pertsonala
24. Autonomia pertsonala errespetatzea eta aukeratzeko gaitasuna errekonozitzea
25. Elkarrizketako iritzi desberdinen aurrean entzuteko gaitasuna baloratzea
26. Proiektuetan parte hartzeko interesa
27. Egungo gizarteetako sinesmen-aniztasuna baloratzea, tolerantziarik gabeko jarrerak baztertuz.
28. Mundu-ikuskeraren desberdinek egindako gizarte-proposamenekiko jarrera kritikoa baloratzea.
29. Desberdintasunean oinarritutako errealitate sozialaren aurrean sentsibilizazioa
30. Beste pertsonen balorazio negatiboa inplikatzeko duten

<p>inkak).          Ekialdeko erlijioak: hinduismoa, budismoa, taoismoa, sintoismoa.          Liburuko erlijioak: judaismoa, kristautasuna, Islama.          Mundu-ikuskerak ez erlijiosoak: agnostizismoa eta ateismoa. Mundu-ikuskerak erlijiosoen buruzko kritikak. Arrazionalismoa.          Erlijio-mugimendu berriak.          Mundu-ikuskerak eta erlijio desberdinekin lotutako gatazka historikoak.</p> <p><b>3. blokea. MUNDU IKUSKERA ERLIJOSOAK ETA EZ ERLIJOSOAK GAUR EGUN</b></p> <p>Mundu-ikuspegiak eta erlijio desberdinak Euskal Herrian. Egungo Historia eta Soziologia.          Erlijio-aniztasuna, boterea eta gatazka.          Erlijioak egungo gatazken osagai gisa.          Erlijioen arteko tolerantzia eta tolerantziarik eza.          Erlijioak eta estatua bereizteko prozesua.          Sinesmen-askatasuna. Laikotasuna.          Mundu-ikuskeren zatiketa. Askotariko nortasunak. Erlijiosotasun berriak.</p>	<p>10. Autokontrol tekniken bidez ikaskuntza autoerregulatzea</p>	<p>espresioen erabileran arreta eta atentzioa</p> <p>31. Ezagutza historikoen eta sozialen gainean, andozentrikoak ez diren interpretazioak baloratzea</p> <p>32. Emakumeek kulturaren eta historian duten parte-hartzea ezagutzeko interesa</p> <p>33. Harreman afektiboetan elkarrekiko errespetua eta tratua berdintasuna</p> <p>34. Indarkeriazko jarrerak baztertzea.</p> <p>35. Besteen ideiak eta sinesmenak onartzeko tolerantzia aktiboa.</p> <p>36. benetako demokrazia, garapena eta bakea lortzeko beharrezko baldintza gisa, berdintasuna baloratzea</p> <p>37. Giza Eskubideen zapalketa ekartzen duten egoerak justifikatzeko saiakera errefusatzea Hedabideetatik, Internetetik... jasotako informazioen aurrean jarrera kritikoa</p>
--	---	---



## ARLOA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK



<b>GAITASUNAK</b>	<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>
1. Euskal gizarteko eta munduko mundu-ikuskerak erlijioso eta ez erlijioso nagusiak identifikatzea, presentzia demografikoa eta geografikoa deskribatuta eta analizatuta, gizarteko mundu-ikuskeren aniztasunaz eta dibertsitateaz jabetzeko.	C1. Munduan eta Euskal Herrian dauden mundu-ikuskerak nagusien (erlijiosoak eta bestelakoak) kokapen geografikoa eta soziala behar bezala deskribatzen du.
2. Sinesmen desberdineko pertsonen elkarrekiko ezagutza eta elkarbizitza lortzeko, mundu-ikuskeren elementu zein proposamen nagusiak identifikatzea, horien arteko berdintasunak eta desberdintasunak alderatuta.	C2. Mundu-ikuskerak desberdinen elementuak eta proposamenak identifikatu eta azaltzen ditu, horien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak konparatuz.
3. Mundu-ikuskerak jaiotzen, eraldatzen, garatzen edota desagertzen den testuinguru soziala eta historikoa analizatzea, mundu-ikuskeren bilakaeraren gertaerak eta determinatzaile sozialak ulertzeko gertaera historikoak eta elementu garrantzitsuak deskribatuta.	C3. Mundu-ikuskerak desberdinen bilakaeraren baldintzak eta testuinguruak deskribatzen ditu.
4. Mundu-ikuskeren proposamenak modu kritikoan analizatu gizartearen antolaketa eta praktika historikoa kontuan izanda, eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako arau zein etika-irizpideak nahiz gure gizarteko indarrean dagoen araudia erabilita. Helburua arauen eta errealitate sozialaren arteko konkordantzia eta dibergentzia maila baloratzea da.	C4. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean bildutako irizpide etiko eta normatiboak eta gure gizartearen indarrean dagoen legeria erabiltzen ditu mundu-ikuskerak desberdinek gizartearen antolatzeko egiten dituzten proposamenak kritikoki aztertzeko.
5. Gure ordenamendu juridikoaren balioak ulertzea eta apreziatzea. Ordenamendu horrek botere publikoen	C5. Ezagutzen ditu gure ordenamendu juridikoak botere publikoen konfesionaltasunik ezari,

<p>akonfesionaltasuna, sinesmen askatasuna eta eskubideen zein betebeharren berdintasuna defendatzen du, sinesmen desberdineko pertsonen arteko elkarbizitza soziala lortzeko eta partekatutako balio kolektiboak identifikatzeko laizismoa barneratuta.</p>	<p>sinesmen-askatasunari, eskubideen berdintasunari, guztion eginkizunei eta laikotasunari buruz proposatzen dituen baloreak.</p>
<p>6. Gure ordenamendu juridikoaren balioak instituzio publikoen praktikarekin alderatzea, akonfesionaltasuna eta laizismoa kontuan izanda, eta gure bizitza sozialeko zein politikoko mundu-ikuskerak desberdinak bilatuta eta deskribatuta, arauen eta errealitate sozialaren arteko konkordantzia eta dibergentzia maila baloratzeko.</p>	<p>C6. Mundu-ikuskeren presentzia deskribatzen du Euskal Herriko gizarte-bizitzan, gure ordenamendu juridikoak konfesionaltasunik ezaren eta laikotasunaren inguruan dituen baloreak Erakunde Publikoek gai horien inguruan egindako lanarekin egiaztatuz.</p>
<p>7. Gatazka erlijiosoak analizatzea, balio etikoak eta politikoak kontuan izanda. Hala, espiritu kritikoa eta espiritu sozial integratzailea sustatzeko, ikuspuntu desberdinak jarriko dira mahai gainean.</p>	<p>C7. Aurreko balore etikoekin eta politikoekin lotuta egonik, erlijioen inguruan gaur egun gertatzen diren gatazkak aztertzen ditu, ikuspegi desberdinak aztertuz eta erlijiosoak ez diren beste arrazoi batzuk azalduz.</p>